



Kaleandin gasa sartuko da

> Ondarrutarren kezka kontuan hartuta egin dira 2016. urteko aurrekontuak.

>> Auzo-batzarretan eztabaidatu dira kale bakoitzeko premiak.

>>> Udalak 322.000 euro bueltatu beharko dizkio Udalkutxari, Aldundiaren aurreikuspenak ez direlako bete.

Udalak auzo bakoitzak daukan premiei buruzko informazioa jaso du auzo batzarretan, eta kezka horiek aintzakotzat hartuta prestatuko du 2016. urteko aurrekontua, 2012tik hona urtero egin izan duen modura. Izan ere, udalak konpromisoa hartuta dauka aurrekontuetan herritarren buruhausteak kontuan hartzeke. Herritarren eskariei kasu eginez, hain zuzen ere, Kaleandin gasa sartuko da.

Udalak ez ditu bere konpetentziakoak diren tasak igoko, bizi maila mantendu egin delako. Beste alde batetik, kontuan hartu behar da Udalkutxak Ondarroari emandako dirutik 322.000 euro bueltatu egin behar dizkiola. Bizkaiko Foru Aldundiak ez du batu aurreikusten zuen beste diru, eta, arrazoi horregatik, herrialdeko udal guztiek dirua bueltatu behar diote Udalkutxari.

Beste alde batetik, Telesforo Urrestik utzitako dirua erabili egingo du udalak. Orain arte, etekinak bai, baina akzioetako dirua bera ez da erabili. 1999an, Telesforo Urrestik momentuan 427.390.853 pezatan (2.574.643 euro) baloratuta zeuden akzioak utzi zizkion udalari. Diru haiek frontoi estalia egiteko erabiliko zirela erabaki zuen garai hartan agintean zegoen alderdiak, Euskal Herritarrok udal taldeak, baina gobernu aldaketarekin, frontoiaren proiektua bertan behera gelditu zen. Telesforo Urrestik akzio baloreetan utzi zion diru hori udalari, Telefonica, Endesa, BBVA eta Iberdrola konpainien akzioetan, batez ere. Akzio horiek baloreen merkatuari eta haren gorabeherei lotuta egonik, urteen joan-etorriarekin, diru kopurua ere aldatuz joan da. Berebiziko eragina izan zuen, adibidez, 2008an Amerikako Estatu Batuetan lehertutako finantza krisiak. Gaur egun, akzioak 1.928.968,45€ eurotan baloratuta daude.

Kaleandiko lanak

Kaleandiko proiektua da Ondarroa-ko Udalak esku artean daukan lanik garrantzitsuenetakoa. Hodiak berri egingo dira, eta, bide batez, gasa eta beste zerbitzuak sartu. Horrekin batera, igogailua ipiniko da, oraindik leku zehatza erabaki barik badago ere. Kaleandin gasa sartuta, Txori Errekan ipintzea baino ez da faltako, baina kasu horretan udalak ezin du ezer egin, konpetentzia kontuengatik (foru errepidearen albo-alboan egonik, Foru Aldundiaren ardura da).



Kofradian egindako auzo batzarretako bat.



ibaiondon egindako auzo batzarra.

TELESFORO URRESTIK UDALARI EMAN ZIZKION ONDASUNAK

BBVA 162.486 akzio
IBERDROLA 96.852 "
TELEFONICA 1.072 "
BRUNARA SICAV 392 "
ENDESA 2.800 "
A3 MEDIA 12 "

Guztira 2015ko azaroan balio dutena: 1.928.968,45€



Udalbatzarrak, kofradia zaharrear

Legealdia berria hasiaz batera, Udalbatzak kofradia zaharrear egitea erabaki du udalak, irisgarritasuna erraztearren. Izan ere, udaletxean ez dago igogailurik, eta kofradia zaharrear, oster, bai. Era horretara, ondarrutarrei udalbatzarretara heltzeko erraztasunak emango zaizkie. Udalbatzarren ordutegia ere aldatu egin du, jendearen lan ordutegiarekin bateragarria izan dadin. Orain arte, 19:30ean izan dira batzarrak, eta gaur egun, 20:00etan hasten dira. Udalbatzak, normalean, hilean behin egingo dira, hileko hirugarren egunean

> ANIZTASUN BATZORDEA

Ondarroako Aniztasun Plana aurkeztu dute



Aniztasun Planaren aurkezpena Alamedan.

Ondarroako Udaleko Aniztasun Batzordeak, Kultur komunitateen arteko eza-gutza eta harremana bultzatu nahirik, Aniztasun Plana aurkeztu eta eztaibadan jarri zuen azaroaren 6an, Word Café izenarekin antolatutako dinamikaren bidez, Alamedan. Aztiker urte hasieratik ibili da komunitateekin lanean, eta datu estatistikoekin gain, iritziak jasotzeko, ahalik eta iritzi gehien. Atera duten ondorio nagusia da kultur arteko interakzio oso txikia egon dela. "Proiektuak badaude interakzioa ahalbidetzen dutenak, baina herriratzea komeni da", azaldu zuen Aztikerrek.

Ondorioak kontuan hartuta, hiru eremutan (hezkuntza, kirola eta kultura) indar berezia egin beharko dela jaso dute ikerketan.

Word Café dinamikaren ondorioz, hiru mahaitan banatuta, hiru galderaren inguruan hausnartu eta eztabaidatu zuten, eta jasotako iritziak garrantzitsuak parte hartzaileekin partekatu. Aztikerrek iritziok batu zituen. "Izan ere, helburua plana guztion artean diseinatzea da". Horrez gain, hiru batzar zabal antolatu zituzten, hezkuntza, kirola eta kultur alorretan herritarren artean eztabaida eta hausnarketa sustatzeko.

Lonjaren proiektua jendearean aurkeztu da



Josu Arrizabalaga alkatea eta Iñaki Aurrekoetxea arkitektoa.

Ondarroako Udalaren eskariz, Eusko Jaurlaritzak jendearean aurkeztu zuen Lonjaren proiektua. Portuaren antolaketa berria, espazio publiko bat irabaziko da. Izan ere, gaur egun aparkalekua dagoen tokian kamioietan arraina kargatzeko gune estalia egongo da, eta haren gainean gelditzen den espazioa erabilera publikorako izango da, aisialdirako. Horrenbestez, Ondarroak beste espazio publiko bat irabaziko du. Guneari berari dagokionez, L itxura izango du: lau solairuko

eraikin zentrala eta horren inguruan solairu bateko tartea edukiko ditu. Hain zuzen ere, Lesteko moila, kofradiako gunea eta aurreko aparkalekua beteko ditu gune berriak. Solairu bakarra duen tartean, oro har, arrainarekin lotutako prozedura guztia egingo da. Lesteko moila osoan eta alboko gune osoan ontziek arraina deskargatzeko hamar sarbide edukiko dituzte, eta gaur egun aparkalekua dagoen tokian, kamioietan arraina kargatzeko 13 moila egingo dira.

Arautegia bete egiten du
Udalak ez dauka zeresanik portuaren antolamenduari inguruan. Udaleri eskatzen zaion bakarra da egiaztatzea proiektuak arautegia betetzen duela, eta hala da: arautegia betetzen du. Horrez gain, udalak ez dauka beste eskumenik. Hala ere, udalak eskatuko du portuko sarrera ahalik eta gehien atzeratzea, udalak portuko sarreraraino aktuatzeko aukera eduki dezan, aparkalekuak edo industriagunea egiteko, adibidez.

> ZELAN ANTOLATU DIRA UDAL BERRIKO ARDURAK?



Josu Arrizabalaga Badiola
ALKATEA.
OGASUNA ETA GARAPENA.



Rakel Elu Bengoetxea
GIZARTE ONGIZATE
ETA ANIZTASUNA.



Zunbeltz
Bedialauneta Ibaibarriaga
INGURUMENA.



Visit Beiro Badiola
BERDINTASUNA.



Txomin Etxaburu Solabarrieta
HIRIGINTZA ETA LANARIGOA.



Eneritz Basurko Pagoaga
HEZKUNTZA ETA EUSKARA.



Unai Barrenetxea Gurrutxaga
KIROLA.



Idurre Ibazeta Lertxundi
HEZKUNTZA ETA
ANIZTASUNA.



Iñaki Lersundi Arrizabalaga
KULTURA.



Oier Lertxundi Segura
HEZKUNTZA ETA
ANIZTASUNA.

> EUSKARA

Ondarroako esaerak lau haizetara zabalduko dira, teknologia berrien bitartez



Aplikaziorako ahotsak grabatzen lagundu duten herritarrak.

ahuak
emonala

Ondarroako Udaleko Euskara Zerbitzuak, herriko beste hainbat eragilerekin batera, Ondarroako esaerak eta berbak batzen dituen aplikazioa garatu du, mugikor eta tabletetan erabiltzeko modukoa.

Ondarroako esaerak eta berbak jasota egon dira, baina jendeak ahominean erabiltzea izan da oraingoan Udaleko Euskara Zerbitzuaren helburua. Horretarako, hainbat hilabetez, ekimen oso bat martxan ipini du, Ahuakemonala izenarekin ezagutzera eman dena. Proiektu horren barruan, esketx lehiaketa antolatu zen ekainean, eta azaroan eta abenduan, bata bestearen atzetik, aplikazioa eta lehiaketa etorri dira. Haur, gazte

nahiz heldu, hainbeste herritar egon dira prest aplikaziorako ahotsa jartzeko: 70 lagunetik gora pasa dira Radixutik grabaketak egitera. Eta aplikazioan jasotako hori, gainera, lagungarri izango da lehiaketan parte hartzeko. Orduantxe ikusiko da bakoitzak Ondarroako zenbat berba eta esaera dakizkien.

www.ahuakemonala.eus web gunean sartu behar da lehiaketan parte hartzeko. "Ahuakemonala denentzako egitasmoa da, entretenimendu bila dabilenak erraz aurkituko du aplikazioan, baina ez da entretenimendu hutsa, hori baino askoz gehiago da. Izan ere, gure berbetari balio handiagoa emango diogu erabiltzen dugun bakoitzean,"

gogoratu dute Udaleko Euskara Zerbitzuan.

Geuk be ondarrutarrez bideoa

Bigarren urtez jarraian, Ondarroako Udaleko Euskara zerbitzuaren eskariz, bideoa prestatu da Euskara Egunari begira, Ondarroara etorri eta ondarrutar egiten duen hainbat lagunentzako testigantzekin, euskara eurenganatu dutenekin. Bilbo, Madrid, Pakistan, Txina, Moldavia, Aragoi eta Senegaleko jendea agertzen da berbetan, besteak beste, euren ama hizkuntzan zein ondarrutar. Bideoa youtubetik jaitxi daiteke, "geuk be ondarrutarrez" idatzita. Milaka lagunek ikusi dute.



Geuk be ondarrutarrez bideoa irudi bat.

> HIRIGINTZA

Kamiñazpiko berrikuntza lanen bigarren fasea martxan dago



Saneamendu arazoak konpontzeko lanak.

Hurrengo asteotan, Kamiñazpin hainbat lan egingo dira, eta, halan, udan amaitutako lanekin jarraituko dute. Bigarren fase honetan, goi-goiko alderdiko espaloia, hau da, botika parekoa, berriro egingo da, eta beste aldean ere lanak egingo dira: lbaiondoruntz bide berria zabalduko da, eta ingurua urbanizatu egingo da, hau da, aurreko fasean txarto geratu zen ingurua ondo ipini. Bide batez, Kamiñazpiko beheko partean dauden saneamendu arazoak konponduko dira, eta asfalto berria bota.



2. fasean asfalto berria botako da premiadun tokietan.



1. fasean egindako lan batzuk.



> Hiriaren Antolamenduaren Plan Orokorra lantzen hasiko dira

Udala Arau Subsidiarioak berrikusi eta Udalerriko Hiri-Antolamendurako Plan Orokorra lantzen hasi da. Ondarroako Udalean dauden dokumentuak aintzakotzat hartuta (udal plangintzaren hirigintza-informazioa eta diagnostikoa, ingurumen azterlana eta azterlan soziourbanistikoa eta sozioekonomikoa), informazioa jasoko da azpigituren eta hornikuntza sarean eta etxebizitzaren erabilerean gainean. Horrez gain, ondarrutarrek eurak ere izango dira informazio iturri. Horretarako, herritarren parte-hartze programa martxan jarriko da.

> Alleriko beharrak 2016ko uztaiera atzeratu dira

Uztailean Alleri berreskuratzeko lanak hasi baziren ere, berehala gelditu behar izan ziren: batetik, lanerako erabili behar ziren kamioientzako bidearen geruza beharbesteko lodia ez zelako; eta, bestetik, Alleriko lanek lur jabe bati baino gehiagori eragitean, baimen guztiak jasotzea falta delako. Baimen guzti-guztiak arinago edukitzea espero bada ere, lanak ez dira 2016ko uztaiera arte hasiko. Izan ere, beharrak bisoi europarraren ugalketa garaitik kanpo egin behar dira, hau da, uztailetik aurrera.

Horrenbestez, udalak Alleriko padura eta Artibai erreka ondoko ibai-basoa berreskuratzeko dituzte, eta inguru hartako biodibertsitatea handitu. Besteak beste, urteen joan-etorriarekin eraiki diren lurrezko hormak kenduko dira, eta kanalak zabaldu. Horri esker, espezieak ugartu egingo direla aurreikusten da. Gainera, lurra mugitu eta mailakatu egingo da, flora desberdina lortzeko. Eta urak leku gehiago ere edukiko du gainez egiteko.



> BERDINTASUNA

Ekimen bi antolatu dira abenduan, indarkeria matxista salatzeneko ekimenen barruan



Azaroaren 25eko elkarretaratzea.

Ondarroako Emakumeen Udala Berdintasun Kontseiluak eta Ondarroako Gixon Taldeak antolatuta, abenduaren 18an, 19:00etan, Macho-Maris antzezlana eskaini zuten Etxelilan, "kode matxistetan tratuak izan arren, haien aurrean matxinatzen ahalegintzen ari diren gizonei dedikatutako ikuskizuna; autokritika eta hausnarketak umoretsua egiteko deia";

eta abenduaren 19an, 13:00etan, Alamedan, Women in black ekintza izan zen, Etxelilak antolatuta, "emakumeak protagonista izan ziren ekintza". Emakumeak beltzez jantzita batu ziren.

Ekimen biak biolentzia matxista salatzeneko ekimenen barruan sartzen ziren, azaroaren 25aren harira prestatutako ekimen zerranda luzearen barruan.



EUSKARA

> Jolastean eta jokatzean ere, euskaraz

Udaleko Euskara Zerbitzuak, Urtxintxarekin batera, Parketarrik proiektua martxan jarriko du, jolas guneetan euskararen erabilera bultzatzeko sortutako proiektua. Ondarroan, orokorrean, umeek euskaraz jolastean duten arren, jolas jakin batzuetan gaztelania erabiltzen dutela ikusi du udalak, eta, arrazoi horregatik, bat egin du proiektuarekin. Oraindik itxura eman behar bazaio ere, asmoa da monitoreen laguntzarekin ordu eta leku jakin batzuetan, umeek euskaraz jolastean ipintzea gaztelania erabiltzen duten jolas horietan.

Bestalde, Udaleko Euskara Zerbitzua kirolleko begiraleekin batuko da, umeek gaztelaniatik hartuta erabiltzen dituzten espresioak euskaraz esan ditzaten.

KULTURA

> Udalaren lokalen erabilera arautuko da

Udaleko Kultur Saila udalaren lokalak zeinek, zelan eta zertan erabiltzen diren aztertuko du, eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak zehaztuko ditu. Hitzarmen batean jasoko dira erabilerarako baldintzak, eta hitzarmen horren baitan, udalaren lokalak erabiltzen dituztenek urtean ekintza bat edo bi eskaini beharko dituzte herrian.

KIROLA

Kirol agendak 60.000 bisita baino gehiago

Aurreko legealditik, herriko kirol taldeek eta norbanakoek tresna bat daukate beraien kirol informazioa publikatzeko eta beste kirolarien berri izateko. Martitzenetan eta eguinetan argitaratzen da: martitzenetan, aurreko asteburuko ekimenak jasotzen dira; eta eguinetan, hurrengo asteburuko ekimenak. Datuek harrera ona eduki duela erakusten dute, aurtengo 60.000 bisitarien muga gainditu da eta. Informazioa kirolagenda@gmail.com helbidera bidali behar da, eta agenda www.ondarroa.eu helbidean kontsultatu daiteke. Facebooken ere badago Kirolagenda Ondarroa izenarekin. Herritarrek parte hartzeko tresna bat da.



Rakel Elu, Amankomunazgoaren egoitzaren aurrean.

Rakel Elu izendatu dute Lea-Artibai Amankomunazgoko lehendakari

Emakume batek hartu du Lea-Artibaiko Amankomunazgoaren lehendakari-tza, estreinako, Rakel Elu Bengoetxea Ondarroako Udala Ongizate Batzordeburua. Lea-Artibaiko hamar herri daukate ordezkari-tza Lea-Artibai Amankomunazgoan, eta lehendakaria aukeratzean, zarpina boto lortu zituzten EH Bilduren eta EAJren hautagaiek. Berdinketaren aurrean, boto kopurua hartu zen kontuan: eskualde mailan, Bilduk 6.134 boto ditu, eta EAJK, oster, 5.878 boto. Horrenbestez, EH Bilduren hautagaia aukeratu zuten.

"Nire erronka da herriekin eta herritarren parte hartzearekin

politika eraldatzaileak lantzea", esan du Eluk. EAJK kudaketaren ardura banatzea proposatu zuen, hau da, urte bitan EH Bilduk eta beste urte bietan EAJK gobernatzeko. EH Bilduk gogoratu zuen orain urte asko antzeko esperientziak oker irten zuela. Horrenbestez, agintean dena delakoa egonda ere, legealdi naturala betetzea aldarrikatzen du EH Bilduk, kudeaketa eraginkorra izan dadin. «Garrantzitsuen programa bateratuak lantzea da, eta horretan jarriko da ahalegin handiena», dio Eluk.

Rakel Elu Udaleko Ongizate Batzordeburua da aurreko legealditik.

>>Jabekuntza eskolak eskaintza zabala dakar

Beste urte batez, Udaleko Berdintasun Sailaren eskutik, martxan jarri da Jabekuntza eskola. Ikastaro eskaintza zabala daukar ikasturteari begira, gustu eta nahi guztiak asetzeko modukoa. Jabekuntza eskola 2003an jarri zen martxan, emakumeen partaidetza politiko eta soziala bultzatzeko tresnak eta guneak eskaintzeko helburuz, eta urte hauetan guztietan 350 emakume baino gehiagok parte hartu dute. Emakumeen partaidetza erraztearen, haurtzaindegi zerbitzua egotea da, eta matrikularioa: 5 euro (langabetuentzat, 2,5 euro). Aurreko urteetan modura, ikastaro gehienak euskaraz dira, nahiz eta tartean-tartean bat edo beste gaztelaniaz eman.



> Guatemalako emakumeak, Etxelilan

Indarkeria matxistaren aurka lan egiten duten Guatemalako elkarteetako liderrek Euskal Herria bisitatu zuten azaroan, eta Etxelilan ere egon ziren. Euskaldunekin ideiak elkartrukatu, Guatemala-ra estrategia berriak eratea izan zuten helburu, eta ondarrutarrek, euren aldetik, Guatemalako andrazkoen burrukaren testigantzak entzun ahal izan zituzten.

>>Ongizate arloan ari diren taldeei diru laguntzak

Estreinako, ongizate arloan diharduten taldeek diru laguntzak jaso ahal izango dituzte. Udaleko Ongizate Batzordea irizpideak argitzen ari da, beste udal batzuetako esperientzia aintzat hartuta.



GIZARTE-ONGIZATE

Errefuxiatu siriarreri harrera egiteko sarea osatu nahi da

Udaleko Ongizate lan taldearen ekimenez, azaroaren 12an batzar zabala deitu zen errefuxiatu siriarreri harrera egiteko sarea sortzeko. Helburua zera da: errefuxiatuok Ondarroara heltzen direnerako beharrezko laguntza guztia prest edukitzea.

Hala ere, batzarrean informazioa falta zela ikusi zen. Hori dela eta, batzarrean erabaki zena betetzeko, Ongizate Batzordeak Eusko Jaurlaritzan datuak eskatuko ditu EAERA iritsi daitezkeen errefuxiatu kopuruaren gainean, eta eskualdeko eta inguruko herrie-

kin harremanetan jarriko da, beste esperientzia batzuk ezagutu eta horrelako egoeretan zelan jokatu izan duten jakiteko. Horrez gain, udaleko zerbitzuetan errefuxiatuekin gela edo lokal hutsak partekatzen prest egon daitezkeen bolondresen datuak koordinatuko dira. Bide batez, Eusko Jaurlaritzan galde-tuko da Alokabideren bitartez lokal edo logelaren bat uzteko aukerarik egongo litzatekeen, behin-behinean bada ere, errefuxiatuei ahalik eta gastu gutxien eraginda.

BATZORDEAK



INGURUMENA

> Edukiontzia gehiago Astillerun, errezagor birziklatzeko

Auzokoen eskariari erantzunda, udalak birziklatzeko edukiontzia gehiago ipini ditu Astillerun, Antzosolo aurrean. Hain zuzen ere, olio birziklatzeko eta etxe-ko traste txikiak berrerabiltzeko (liburuak, elektrotresnak, arropak...) edukiontziak ipini ditu.

> 170 familia ari dira organikoa birziklatzen

Udabarrian udalak organikoa etxe aurrean batzeko sistema ipini zuen martxan. 70 familiarekin hasi zen proiektua, baina dagoeneko 170 familia ari dira euren organikoa birziklatzen.

Familiak etxe aurrean lagatzen dute organikoaren potoa, astean hiru bidar, eta udaleko langile batek jasotzen ditu hondakin organikoak gero konposta edo ongarria egiteko. Ongarri hori herriko jardinetan eta Larruskaingo baso publikoan ari da erabiltzen udala. Izena eman nahi duenak hona jo behar du: ingurumena@ondarroakoudala.net edo 946833677



> Erreterian uxolei aurre egiteko neurriak eskatu ditu Udalak

Ondarroako udalak neurriak eskatu dizkio Eusko Jaurlaritzaren URA agentziari, Erreterian

gertatzen diren uxolei aurre egiteko. Ez da halako eskaria egiten dion lehen aldia. Urtero urtero ibaiak behin baino gehiagotan egiten du gainez Erreteria auzoan, eta sarritan ura etxeetara sartzen da. Horregatik, udalak eskatu dio Jaurlaritzari uxolen eragina txikitzeko neurri egokiena zein den aztertu eta proiektu bat aurrera eramateko.

LANARIGOA

> Udal lanpostuen balorazioa egingo da

1994an egin zen azken udal lanpostuen balorazioa, eta urte asko pasa direnez, lanpostu batzuk egokitu egin behar dira, gaur egun zereginak aldatu egin dira eta. Lau-bost hilabete beharko dira gaur egun dauden lanpostuak eta zereginak jasotzeko, eta, horren arabera, ikusiko da udal lanpostuak errealitate egokitu beharra dagoen edo aldaketarik egin behar den.

Udalak onartutako MOZIOAK

> Gure esku dago ekimenaren mozioa onartu dute

EH Bilduk eta EAJk Euskal Herriak herri zein nazio gisa erabakitzeko eskuabidea aldarrikatu zuten, aho batez, Gure esku dago ekimenaren mozioa onartu hartuta. "Bada gara oinarritzko eskubide hau bermatzeko, denon indarrak batuz herri subirano gisa aurrera joateko" aldarikatu zuten.

> Askatasun sexualaren aldeko aldarria egin dute

EAJk bat egin zuen EH Bilduk adierazpen sexualaren inguruan aurkeztutako mozioarekin. "Pertsona lesbianen, gayen, bisexualen eta transexualen eskubide politiko, ideologiko eta zibil oro babesten dugu, oinarritzko askatasun printzipioaren baitan", nabarmendu zuten.

> Kataluniako prozesuarekin elkartasuna adierazi dute EHBilduk eta EAJk

"Ondarroako Udala erabakitzeko eskubidearen alde agertzen da, esparru guztietan, eta, beraz, bai Katalunari baita Euskal Herriari ere dagoen eskubidea badela aldarrikatzen dugu". Horixe jasotzen zuen EH Bildu Udal taldeak aurkeztu eta EAJk ere onartu hartutako mozioak.

> Immigrazioaren aurrean jarrera bateratua agertu dute Siriako egoera gogoan hartuta

EH Bilduk adierazpen instituzionala agertu zuen migrazio fluxuaren aurrean: "Ondarroako Udaltzako Ondarroako Siriako eta beste herrialde batzuetako gatazka politiko eta militarretik ihes egin duten errefuxatuak hartzeko prestutasuna adierazten du, baita konpromiso bera duten beste udal batzuekin lan egiteko ere". EH Bilduk eta EAJk aho batez onartu zuten adierazpena.

> Askapenaren aldeko mozio bi onartu dira

Mozio bi aurkeztu ziren Askapenaren aurkako auzia dela eta, eta biak onartu zituzten: EH Bildurena Bilduren aldeko botuekin eta EAJren abstentzioarekin; eta EAJrena, EAJko zinegotziaren aldeko botuekin eta EH Bilduren abstentzioarekin. "Salatu nahi dugu Askapena fiskalizatzeko eta ilegalizatzeko eskaerari aurre egin beharrean dagoela. Hori guztia eskubide zibil eta politikoaren aurkako beste eraso bat dela deritzogu", jasotzen da EH Bilduren mozioan. "Auzibidezko prozesu hau hasterik bidean atzera egitea suposatzen du, eta giroa gaiztotzen duen elementua da euskal gizartea normalizazio politiko osoa lortzeko prozesuan ari den une honetan", esaten da EAJren mozioan.



> Ibon Iparragirren euskal preso politikoaren egoera salatu zuten, aho batez

Ondarroako Udalak aho batez onartu zuen Ibon Iparragirre euskal preso ondarrutarraren egoeraren aurrean Lea-Artibaiko herri guztietan aurkeztu zen mozioa. "Udal honek bere kezka adierazi nahi du Ibon Iparragirre euskal preso gaixoak pairatzen duen egoera larriaren aurrean", jaso zuten, besteak beste, eta elkarretaratzea deitu zuten.

> Birziklapen tasak %70era igotzea onartu dute

Eguzki talde ekologistak aurkeztutako mozioa onartu du udalak. Mozio horrek eskatzen du legegintzaldi honetan herriko birziklapen tasak %70era igotzeko, legediak agintzen duena betetzeko. Gaur egun, Ondarroak hondakinen %27 inguru baino ez du bidaltzen birziklatzera. Euskal Herriko beste herri batzuetan ipini diren hondakinak batzeko sistema arrakastatsuak Ondarroan eta Lea-Artibai eskualdean inplantatzeko eskatzen du mozioak.

> Zaldupe ikastetxeko teilatua eta inguruak konpondu dira

Udan, eskolak hasi orduko, Zaldupe ikastetxeko teilatua konpondu zen. Eraikin nagusiko teilatua oso-osorik aldatu zen, eta eraikin berrikoa ere konpondu zen. Izan ere, eraikin nagusiko teilatuaren zati bat aztertu ostean, dena oso egoera txarrean zegoela ikusi zuten, eta, hortaz, goitik behera aldatu zen. Irakasleek eraikin berriko hain-

bat lekutan ere arazoak zeudela adierazi zuten, eraikin berriko teilatuan ere konponketak egitea erabaki zen. Bide batez, premia zegoela eta, teilatuaren ale- roia eta sarrerako espaloia ere berritu zituzten. Beste alde bate- tik, eraikin berriaren atzeko aldea itxi egingo da, gunea hai- zearengandik eta euriarengandik babesteko.

AZPIEGITURAK



Hondartzako zubia.

Ondarroako Plaiko Zubia «egoera txarrean» dagoela dio txosten tekniko batek

> Udalak txirrist ez egitekoa bota du.

Ondarroako Udalak hondartzako zubia ahal bait ari- nen konpontzen hasteko eskatu dio Bizkaiko Foru Aldundiari. Izan ere, aldundia da zubiaren mantenimenduaren arduraduna, babestutako hondareen artean zerrendatuta dauka eta.

Bizkaiko Foru Aldundiko adituek egindako txosten baten ar- abera, Ondarroako Plaiko Zubiaren egitura nahikoa kaltetuta dago, eta epe ertainean igarobidearen

egitura sendotzea gomendatu dute, osterantzean, egitura jaus- teko arriskua dagoelako. Kalte gehienak hezetasunak eta kresal- ak eragindakoak direla jaso da, eta zubian behar baino mantene- tze lan gutxiago egin direla. Teknikariek ibaiaren ertz bietako oinak lehen zeuden erara uztea gomendatu dute.


Hori dena aldundiaren zeregi- na da. Udalak, bere aldetik, behengainean produktu berezi bat eman du, txirristadarik ez egi- teko.

> Udalak beste zirkuitu osasungarri bat ipini du

Ariketak eginaz osasuna zain- tzen dela eta, Ondarroako Udalak adinekoentzako beste zirkuitu bio-osasungarri bat ipini du Zalduperen anexoan. Zirkuitu hauen helburua kirola edozein adinetan egitea posible dela erakustea da. Zirkuituan, gorputzeko atal guztiak erabil- tzeko makinak ipini dituzte. Honako honekin, adinekoek bi zirkuitu daukate herrian zehar: Kamiñazpin eta anexoan.



Zalduperen anexoko zirkuitua.



^ Kiroldegiko kantzako zuloak konpondu dituzte

Kiroldegian hainbat lan egin dira: kantzako zuloak konpondu dira, musika aparailua berritu eta LED argiak ipini, energia gutxiago kontsumitzeko. Beste alde batetik, igerileku txikian, txirrist ez egiteko lurzorua jarri da.

TALDEAK BERBETAN

UDALBARRIAK ZABALIK DAGO TALDEEN IRITZIAK JASOTZEKO.
Bidali idatzia helbide honetara: komunikazioa@ondarroakoudala.net

Udalean ordezkariak daukaten talde politiko biek ere euren tartea daukate txoko honetan

KARENKA ELKARTEA

Gure seme-alaben eskubideen defentsan elkarturik



Karenka, Ondarroan 2014ko azaroan lanean hasi den guraso talde bat da. Ondarroako Udalen Ongizate Batzordearen babesarekin. Elkarte bezala 2015ko ekainean eratu gara. Elkarte hau ezgaitasuna eta urritasuna duten seme-alabak ditugun gurasoek osatu dugu.

Gure helburu nagusia, gure seme-alabek izan ditzaketen ezgaitasun edo urritasunei modu eraginkor batean aurre egitea da bizitzako esparru guztietan dauzkaten arazoei irtenbide bat emanaz. Gure seme-alabak pertsonak diren heinean, beraien inklusioa bizitzako esparru guztietan ahalik eta errazena izatea.

Herriko guraso guztiei zabalik gaude, elkarrekin lan egiteko, instituzioen aurrean elkarturik aurkezteko, eta gure seme-alaben eskubide guztiak bermatzen doazela ziurtatzeko.

Hasteko, herriko ikastetxei, musika eskolari eta polikiroldegari inkesta bat egin diegu, bertako indar guztiak eta gabeziak aztertu nahian. Inkestak jaso

ondoren, diagnostiko bat egin dugu: Orokorrean aipatu genezake Hezitzaile laguntzaileen ordu kopurua murrizten joan dela ikasturtez ikasturte eta kasu guztietan ez direla betetzen umeei dituzten ordu eta baliabide beharrak. Ikastetxearen eta gurasoen artean ahal bezala ordutegia betetzen da, baina ezinezkoa da ordutegi osoa betetzea. Irisgarritasun aldetik ere hainbat hutsune aurkitu dira.

Uztailean Bilboko Hezkuntza Delegaritzan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Sailburuordearekin eta Hezkuntza Berezikiko arduradunarekin bilera bat izan genuen, gure kezka eta eskaerak helarazteko asmoz. Bilera horretan hitz egindakoaren erantzunaren zain gaude.

Hurrengo urratsak: Gure seme-alaben eskubideak (Irisgarritasuna, baliabide material eta pertsonalak) eguneroko bizitzako esparru guztietan bermatzea izango da: aisialdian, kirolean, kulturen, azpiegitura eta zerbitzu publikoetan, etxean...

EH BILDU

Herritar guztientzat lanean

Euskal Herria Bilduk azken lau urteetan beste eredu bat posible dela erakutsi izan du. Parte hartzean sinisten dugu, udal ordezkari eta herritarren arteko elkarlanean eta hurrengo lau urte hauetan ere horretan sakondu nahi dugu. 123 neurri zehatz proposatu genituen eta horiek aurrera eramateko konpromisoari ilusioz heldu dio udal talde berriak.

Parte hartzea oinarri EH bilduren zereginen lehentasunetan eraldaketa eta justizia Soziala egonik herritar guztiontzat hobea den herria dugu helburu. Bide horretan bazterketa sozialik gabeko herria, berdintasunean, feminismoa eta euskaratik eraiki nahi dugu herria. Zerbitzuak herritar guztion eskura egongo diren herria, herri hezitzailea eta tokiko garapenera lehentasuna emango dioten proiektuak eramango ditugu aurrera. Bestetak beste, Etxelila bezalako tresnei

indarra eman, herri hizkera bultzatu, herri kurrikuluma garatu, Ondarroa 2020an hartutako konpromisoak aurrera eramango ditugu eta nola ez krisiak gogotik kolpatu dituen herriarentzat arituko gara lanean, gutxien dutenei zuzendutako laguntza, zerbitzu eta neurriak ezarriko ditugu.

EH Bilduk, gure bizi kalitatea helburu, herri jasangarriago baten alde egiten du. Herritar guztiek gozatu ahal izateko moduan garatuko den herria nahi dugu; herritar guztiek baldintza berdinetan bizi ahal izateko hirigintza proiektuak garatuko ditugu; beti ere, ingurumenari begirunez.

Herritar guztiontzat egingo du lan Euskal Herria Bilduk. Herritarrekin batera egin nahi dugu bidea, guk geure herriaren etorkizuna eztabaidatu eta erabaki nahi dugu. Dena erabaki nahi dugu.

ondarroa.ehbildu.eus

EAJ

Ondarroa hobetzeko gabilz beharrean

Pasa dira sei hilabete udal hauteskundeak egon zirena eta ailegatu da momentua EAJ-PNVko udal taldeak egindakoaren barri emoteko ondarrutarrei.

Gure programan jarri gunduan moduan, Ondarroa hobetzeko gabilz beharrean, biziteko, behar egiteko eta disfrutatzeko herria izan daigun.

Hona hemen orain arte egin doguzanak:

- Udalean martxan jarritako batzordeetan parte hartzen dogu, bertan eztabaidatzen diralako arloetako gai garrantzitsuak. Era berean, ikusi doguneko batzorderen bat ez egoala martxan, udal Gobernuari esan deusagu, uste dogulako eurak dirala gaien barri emoteko eta eztabaidatzeko tokirik aipose-na.

- Pleno aurretik, ahaleginu gara gai ezberdinak, udal gobernuagaz, alde aurretik aztertu eta eretxiak bateratu leikezan ikusten. Esan dogun lez, proposamenaren alde edo aurka egoteko, gure irizpide nagusia herritarren premiei eta nahiei erantzutea da.

- Udal Gobernuagaz, gai garrantzitsuei buruzko batzar

monografikoak egingo doguz, Ondarroako etorkizunerako proiektuei buruzko planteamendua egiteko eta, ahal dala, akordioak lortzeko.

- Oposizioa garan partez, Udalar informazioa eskatzen deusagu, udal Gobernuaren jardunaren barri emon, eta gure ekarpenekin erantzun zabalagoak emateko.

Laster batean, 2016ko Aurrekon-tuaren proposamena izango dogu esku artean, eta badakigu preminak handiak dirala: aparkalekuak, argiteria, garbitasuna, zamarren kudeaketa, etxebizitzak, ekonomia, lana, turismoa... Espero dogu ondarrutarren bizi kalitatea hobetzeko balioko daben aurrekontuak izatea.

Ildo beretik, Udalez gaidiko erakundeak dirala eta, dakizueenez, Ondarroako Udala Lea-Artibaiko Amarkomunagozko kide da. Bertan, Gizarte Zerbitzuak eta Zamarrak kudeatzen dira.

Udal hauteskundearen emaitzen ondorioz, honako ordekaritza dogu: EAJ-PNV 7, EHBilduk 6 eta Independiente bi dagoz. Manko-munidadeko presidente

Rakel Elu aukeratu zan, EHBilduko eta independente baten botoakin.

Talde bakoitza daukaguzan indarrak kontuan izanda, eta Gizarte Zerbitzuak eta Zamarren kudeaketa hobetzeko, gure partetik, presidentzia konpartitzeko eta legealdi osorako bide orria adosteko proposamena egin geuntsan EHBilduri, baina ezezkoa emon deutse. Pena bat, guretzat aukera ederra dalako adostea ardatz hartu eta herritarren premiei era bateratuan erantzuteko.

Esan dogun lez, adostearen aldekoak bagara be, kezagarria begitandu jaku mankomunidadean EHBilduk izandako jarrera: eztabaidatu beharreko gaiak zuzenean plenora eroan ditue, aurretik gaiak adosteko ezelako ahaleginik egin barik, eta hala erretiratu behar izan dabe aurkeztutako lehen proposamena. Uste dogu bide okerra dala, eta halan esan deusagu ordezkari.

Dana dala, gu geurera, herrirako onak diran gaiak adostera, ahalegintzera behintzat, eta beti eta beti, proposamenak egitera, hasieran esan dogun lez, gure herria bizi, behar egin eta disfrutatzeko izateko.



900 314 053 TFNOA. + BUZOIAK

2015eko uztaitetik abendura

TELEFONO DEIA

· «Kaixo. Ein dozuen guzti ondo da, bañe akats bat ikusten dot: beti entzun dot Kalandixe inportanti dala, eta ni neu ados naz. Inok pentsaten dau han bixi rizen pertsonakin (nagusixak)? Aszentzorik ezin bara ipini be... eskilara mekanikoik be ezin leike ipini? Pentsaten dot nahiku dela etxe barrun dazen eskillarakin. Bixka-bixkat pentsa zer ein leiken, mesedez».

ERANTZUNA: **Kaleandin igogailua ipiniko da. Lekurik egokiena aukeratzan ari gara.**

· «Hoy he ido al parque de Ibaiondo con mi nieta, y se ha caído. El parque está lleno de agujeros. Afortunadamente, no se ha hecho nada, pero creo que es responsabilidad del ayuntamiento evitar cualquier tipo de peligro. Unas madres que estaban en dicho parque me han comentado que una de ellas ya se ha quejado en el ayuntamiento, no sólo por los agujeros, sino porque los parques y calles están sucios, el mobiliario urbano está roto (bancos, papeleras,...). Como estas madres no han tenido respuesta, he decidido mandar un e-mail para saber cómo está el tema, si el ayuntamiento piensa tomar medidas al respecto. De vuelta para casa hemos parado en los municipios que están en frente de la residencia y estaba asqueroso... aparte que en el suelo blando de los columpios había otro agujero, en el que cualquier niño se puede tropezar y caer... Cuando piensa arreglar todo esto el ayuntamiento? No puede ser que las zonas de los niños estén tan descuidadas.

Otro tema que está en boca de mucha gente es que hay pocos parques para niños, y según me han comentado hoy la gente quiere poner un parque para niños en la plaza Latxanbre enparantza. ¿Qué hay que hacer para que esto se lleve a cabo? ¿Cuántas firmas harían falta?»

ERANTZUNA: **Somos conscientes de las carencias que tiene Ondarroa. Tenemos hijos pequeños, personas mayores, etc, y mismas necesidades. Cada ondarres tiene una o más demandas concretas y distintas.**

El dinero público ha de ser fiscalizado y eso lleva períodos y tiempos de actuación.

Si todos fuéramos un poco más cívicos, tendríamos el pueblo más limpio.

Estos problemas se plantean en las comisiones del ayuntamiento participando, técnicos, concejales y ciudadanos. Las comisiones están abiertas a todas las personas para aportar criterios o ideas. De todas formas, desde el ayuntamiento estamos ejecutando las obras y reformas para ir subsanando de alguna manera las reivindicaciones que estás solicitando. Por otra parte, la comisión de educación tiene intención de impulsar el proyecto del psicólogo Francesco Tonucci La Ciudad de los Niños, que se basa en el interés de los propios niños a la hora de organizar los municipios.

· «San Juan Txurru kali, 1etik 3re bitxartin, txakur kakaz beteta da. Ezin leike oñez ibili, eta usañe ezin de aguanta, soluziñoirik ez bada, sarrixaua garbitxu. Itxurriko parin be, kaka muntu, bañe horrek katunak ixan leikez. Paretetan ipinitxe daz katuai jatekoik ez emoteko, bañe jamanik be ez dabe etxen».

ERANTZUNA: **Garbiketa arduradunari esanda dago, eta ahaleginduko gara sarriago garbitzen. Katuei kalean ez diegu jaten eman behar. Beste alde bate-tik, 2016an udalak kontzientziatio kanpaina berria jarriko du martxan.**

· «Eun on! Da esateko, zoixontzeko zeuek danok, udalekuok. Jaxak amaitxu diz, eta 21n gaz, jaixak ondo pasa diz eta zoixonak, ondo dana, eh?... Egun baten be alamedi ez dozue bonbea uraz, umik eta nausixak zikin

tartin dabiz. Ondarru de zikiñe, geu gazelako zikiñak eta garbitzailik ez dizelako garbitzailik ixan bihir dizen modukuk. Eskerrik asko inpuetuk kobratearren, zeuen soldatak kobrateko balixo dabelako bakarrik, beste ixetako be ez dabe balixo gure inpuetuk. Mitinetan dana da egokixe, bañe hori ikusi ein bihir de».

ERANTZUNA: **Udalaren alderditik ahalegintzen gara daukagun tresneriarekin ahal denik eta leku gehienetara ailegatzan. Udaleko langileak ahalegintzen dira profesionaltasunarekin lana egiten.**

· «Udalberriak-en irakurri dot ekonomi aldetik turismu gora dule, eta ondo iruditzen gazta, bañe ze eskaintzen dotsau kanpotarrai? Pintxodun tabernak oso gitxi daz; jantokixak be, kontauk. Hondartza datorrenak nahi dau zeoze ariñe jan: plato donbinau edo oilo eri edo holako zeoze, gero barrero be hondartza bueltateko, eta holakoik be zer dakau, ba? Lo etxeko, hotel kontu be, "zero patatero". On momentun bakarrik Arrigorri. Turismu nahi dou bultzatu, ondo, bañe zeozter gehixa eskaini bihiko 'u, ez? (...) Portun gorabeheran, ezto ulertzen ondo ze etxeko asmu dan (...). Aspaldixan, fabrikak, kontserberak, herritxik kanpoa jun bihir dizela eta danak Gardotzako poligonure duz. Zeatxik ez porture? (lehenako usaxun). Holan, bihargiñak oiñez jungo litxakez, edo Urbanon (...). Eta Ortiz be herritxik kanpoa atateko asmu euanela beti entzun dot, ba Ortitzek portun baauke beran bodegak, eta terreno ederra, gañea! Nire ustez, portuai zeoze bixixe emon bihir gako: jantokin bat, arrañe saltzeko dendak, supermerkatu handi bat, (...). Herrixe gerua ta politxa daukau, gerua ta gente gehixa dator, eta honetxek gabezixak jenti uxatu etxen dau. Etorri ahal, jun be bai».

ERANTZUNA: **Eskertzen dizugu ekarpena. Ea ahal den neurrian erantzuten diogun. Kanpotarrei daukagun altxorrik handiena eta ederrena eskaintzen diegu: herri euskalduna eta gure nortasuna. Gaur egun ez da gutxi. Jantoki eta pintxoaren gorabeheran, enpresa pribatuak bultzatu behar duten gaia da hori. Udalak, bere aldetik, dirua inbertitu zuen aurreko legegintzaldian arrigorri ostatu konpontzen, eta horri eskerrak daukagu orain zerbitzu hori zabalik. Bestalde, Ondarroako merkatarien elkarteak bultzatzen du, herrian kontsumitzeko kanpainak bultzatzen ditu, Ondarroa 2020ko planean sektoreak aztertzen gabiltza (besteak beste, turismoa). Portuko obren inguruan, azaldu behar dizugu Eusko Jaurilaritza-ren kompetentzia dela. Portuan lantegiak ipintzeko aukeren eta gainontzeko proposamenen inguruan jakin udalak Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) garatuko duen enpresa hartu duela. Proiektu hori ondarrutar guztiei eta parte hartu nahi duten guztiei zabalik dago, eta plan horretan egituratuko da zelako Ondarroa nahi dugun hemendik aurrera. Guk, herritar legez, ikusten ditugu gure gabeziak eta oztopo askorekin bilatzen gara geure herriaren garapena bultzatzeko orduan, bai oztopo ekonomikoekin, bai eskumen edo kompetentzien inguruan daukagun oztopoekin (Kosta departamentua, Eusko Jaurilaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, e.a.), baina ahalegin guztia egiten dugu geure herria aurrera ateratzeko eta garapena bultzatzeko. Gai honen inguruan azaldu dizun interesa kontuan hartuta, hor dago Ondarroa 2020 prozesua, herri guztiari zabalik den parte hartze aukera bat, urte batzuk funtzionatzen daramana eta, beste gauza batzuen artean, turismoa aztertzen duena. Ahal baduzu eta nahi izanez gero, bertan parte hartzera gonbidatzen zaitugu. Zenbat eta partaide gehiago, ikuspuntu eta ekarpen gehiago. Azken baten, aberatsagoa izango da.**

AGENDA

ABENDUA

· Abenduak 21, astelehena.

GABONETAKO JAZZ DANTZA EMANALDIA Beikozinin.

Saio bi: 18:30ean / 20:30ean.

Antolatzailea: Ondarroako Jazz Dantza Elkarte eta Ondarroako Udala

· Abenduak 22, martitzena.

GABONETAKO JAIALDIA

Kamiñazpiko elizan / 11:15

Erregeei eta Olentzerori ongi etorria, Gabon abestiak, dantzak,...

Antolatzailea: Txomin Agirre Ikastola.

· Abenduak 22, martitzena.

GABONETAKO

DANTZA EMANALDIA

Bide Onera Zine Aretoa/ 19:00

Dantzarteren eskutik

Antolatzailea: Ondarroako Udala.

· Abenduak 23, eguaztena,

GAZTETXOENTZAKO ZINEMA

Arrigorri Ostatu Jatetxean/ 19:00

Horton filma (euskaraz eta doan).

Antolatzailea: Apre Elkarte.

· Abenduak 23, eguaztena,

GABON KANTAK

Kalez kale / 21:00

Ondarroako Metal Taldearen eskutik.

Antolatzailea: Ondarroako Metal Taldea.

· Abenduak 24, eguena,

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN

KALEJIRA Kamiñazpitik Musika Plazara/

12:00. Egunsentia Koop E. / Laguntzailea:

Ondarroako Udala

· Abenduak 24, eguena,

GABONETAKO KANTAK

Kalez kale / 18:00.

Unanue Kamara Korala kantari

Antolatzailea: Unanue Kamara Korala.

· Abenduak 24, eguena,

OLENTZERO BE BIDI EITTEN

Kalez kale / 19:00.

Kalejira abestia, Zubi Barritik Alamedara.

Ant.: Preso eta iheslarien lagunak.

· Abenduak 24, eguena,

GABONETAKO KANTAK

Kalez kale / 19:30.

Kantaizeko Rondalli kantari

Antolatzailea: Kantaize Orfeoa.

· Abenduak 26, zapatua,

I. MUS TXAPELKETA

Arrigorri Ostatu Jatetxea / 17:00.

Apuntatzeko: 94 6830047

- Prezioa: 20 euro / bikoteko

- Sariak: 1. 150 euro+txapelak.

2. 75 euro.

3. Gau bat Arrigorri ostatuan

bi pertsonentzako.

4. Menu berezia. Arrigorri jate-

txean bi pertsonentzako.

Antolatzailea: Arrigorri Ostatu Jatetxea.

· **UMEENTZAKO JOLAS TXOKOA**

Udaletxe Zaharra.

Abenduak 28, 29, 30 eta urtarrilak 4, 5, 7

eta 8. Orduetgia: 10:00 - 13:00.

Txirrimorraski ODLTren eskutik.

3-7 urte bitartekoentzat.

Ondarroako Udala.

· **DANTZA INKLUSIBO IKASTAROA**

Artaka Arte Eskolan.

Abenduak 28, 29 eta 30.

11:00>13:30 / 15:00>17:00.

Jordi Cortesen eskutik.

posta elektronikoz be bai!

Hona hemen helbide bi zuen idatziak, argazkiak, kritikak, testigantzak... bidaltzeko. ERABILI!

orokorra@ondarroakoudala.net

komunikazioa@ondarroakoudala.net

Gorputza astindu eta ondo pasatzeko

gogoa duen edonorentzat.

Prezioa: 10 euro.

Ant.: Ondarroako Udala

Apuntatzeko: 688 637 689.

· **UMEENTZAKO**

GABONETAKO PARKEA

Udal Kiroldegian.

Abenduak 28, 29 eta 30.

16:00etatik 20:30era.

Antolatzailea: Ondarroako Udala.

· Abenduak 31, eguena

KALAMENDIRA IRTEERA

9:00 / Irteera Alamedatik. Antolatzailea:

Tontorramendi Aurrera Mendi Taldea.

· Abenduak 31, eguena

ELKARRETARATZEA: EUSKAL PRESO

ETA IHESLARIEN GIZA ESKUBIDEEN

DEFENTSAN. 13:00 / Alamedan.

· **AHUAKEMONALA LEHIAKETA**

www.ahuakemonala.eus/lehiaketa

100 euroko diru saria

Antolatzailea:

Ondarroako Udaleko Euskara Batzordea

URTARRILA

· **DANTZA GARAIKIDE**

IKASTAROA

Artaka Arte Eskolan.

Urtarrilak 2,3,4 eta 5.

Orduetgia: 10:00>11:30 / 12:00>13:30.

Gorputza astindu eta ondo pasatzeko

gogoa duen edonorentzat. Prezioa: 10

euro. Apuntatzeko: 688 637 689.

Eneritz Zeberioaren eskutik.

Ant.: Ondarroako Udala.

· Urtarrilak 4, astelehena

PIRRITX, PORROTX eta

MARI MOTOTS

Udal Kiroldegia / 18:00.

Amalur ikuskizuna.

Sarrera: 5 euro.

Sarrerak salgai Zurru-Murru liburu den-

dan. Ant.: Ondarroako Udala.

· Urtarrilak 4, astelehena

GAZTETXOENTZAKO ZINEMA

Arrigorri Ostatu Jatetxea / 19:00.

Percy Jackson eta tximista lapurra filma

(euskaraz eta doan)

Antolatzailea: Apre Elkarte.

· Urtarrilak 5, martitzena

UDALA KIROLDEGIKO ASTEA

5ean, goizez, UMEEN EGUNA.

7an eta 8an, ATEAK ZABALIK EGUNAK.

9an, IV. HERRI-FIT TOPAKETA.

Zaldupe Udal Kiroldegia.

· Urtarrilak 5, martitzena

ERREGE KABALGATA

Latxanbre plaza / 18:30

Itsasotik etorriko dira Alde Zaharrera.

Iparra Guraso Elkarte.

Laguntzailea: Ondarroako Udala.

· Urtarrilak 6, eguaztena

BERTSO SAIOA

12:30

Oihana Bartra,

Eneko Abasolo,

Alaia Martin eta

Beñat Gaztelumendi.

Gai jartzailea:

Bikain Urkiri.

Antolatzailea:

Ondarroako Udala.

> JOSU ARRIZABALAGA BADIOLA, alkatea

«Alderdien artean egon izan diren desadostasunak gainditu, eta elkarbizitza hobea bilatu nahi da»

100 egunetik gora daramatzazue udalean. Zein izan da zuen zeregina denbora honetan?

Batetik, Kamiñazpiko lanak amaitu ditugu, aurreko legealditik zetozenak, eta Kaleandiko proiektuari ekin: hoditeria berritu beharra dago, aspaldiko hodiak ditu eta. Bide batez, gasa sartuko da, Kaleandikoentzat ezeze, baita Txomin Agirre bakoitikoentzat ere. Lan hauek amaitzen direnean, Txori Errekan baino ez da faltako gasa sartzea, baina oraingoz, ezin dugu kale hartan lanik egin, errepidearen alboan egonik, Foru Aldundiaren konpetentzia delako.

Kaleandian, igogailua ipini nahi duzue....

Lekurik egokiena aukeratzeko ari gara. Izan ere, gaur egun, Kaleandira igo edo handik jaisteko, Kamiñalde edo Musika Plazaraino joan behar baita igogailua hartu nahi bada. Arrazoi horregatik, uste dugu zentzuzkoa dela Kaleandian bertan igogailua ipintzea.

Gaur egun, Kofradia Zaharrean egiten dira udalbatzak. Zer dela eta?

Kasu honetan ere, jendeari erraztasunak ematearren. Aurreko legealditik datoreen kontua da, eta ni neu, pertsonalki, oso sentibilizatuta nago gai honetan. Kofradia zaharrean, igogailua dago, eta horri esker, ondarrutar guztiek udalbatzara etortzeko aukera daukate, elbarritasuna eduki ala ez.

Zelako harrera eduki du jendearen aldetik leku aldaketak?

Lehenengo denboretan plenoak bete-bete eginda egoten ziren, eta gaur egun, giro politikoa asko aldatu denez, gaien bat eztabaidatu behar delako egon daiteke jendea, baina, osterantzean, ez.

Zelakoa da udalean ordezkaturako alderdi politikoen arteko harremana?

Hasieratik eskaini diegu EAJkoei udal gobernuan parte hartzeko aukera, eta parte hartzen ari dira. Ateak hasieratik zabaldu genizkien. Beste alde batetik, legealdi honetan lortu dena da EH Bilduk eta EAJK elkarrekin mozio batzuk aurrera ateratzea. Horrez gain, gure asmoa da EAJrekin batera hurrengo urteetara begira puntu amankomun batzuk adostea; bata egon edo bestea egon, azpiegitura horiekin jarraitzeko, egin beharrekoak elkarren laguntzarekin aurrera ateratzeko. Azken baten, herri bat gara, eta denok denon premia daukagu.



Ze proiektu nabarmendu nahiko zenuzuzke?

Hirigintza mailan, nahiko gai garrantzitsuak dauzkagu esku artean, HAPO, arrain lonja, Auditorioa, Kaleandi eta luzera begira Zeledonio eraikina.

Beste arlo batzuen artean, aipatzekoa da Etxelila emakumeen topalekuari eman nahi diogun bultzada eta hezkuntzaren atalean egin nahi dugun bidea. Izan ere, Hezkuntza Batzordea martxan jartzeaz gain, herri curriculum eta haurren hiria bezalako egitasmoak martxan jartzeko asmoa daukagu. Bestetik, gutxien dutenen ondoan lan egingo dugu. Gutxiengo errentara heltzen ez direnen diru laguntzak horren adibide.

Udalaren gonbidapenari erantzunez, Eusko Jaurlaritzak hurrengo urteetan Ondarroa garatuko den proiektu garrantzitsuenetako bat aurkeztu berri du....

Lonjaren proiektuaren baitan Eusko Jaurlaritzaren jarduera eremua zehaztuta geldituko da. Udalak ez dauka esumenik, baina eskatuko duguna da portuko sarrera ahalik eta gehien atzeratzea, udalak portuko sarreraraino atzeratzeko aukera eduki dezan, aparkalekuak edo industriagunea egiteko, adibidez.

Gaur egun, ezinezkoa da, portuko eraikinak udalaren konpetentzia diren arren, zoria bera ez baita udalaren konpetentzi, eta portuko sarrera atzeratuko balitz, eremu hori irabaziko genuke. Kontuan hartu behar da Ondarroa lan egiteko oso eremu mugatua daukala, eta aldatetarekin espazioa irabaziko litzateke.

Zertan bereiztuko da udal talde berria?

Betiko modura, gure nahia da atea zabalik egotea herritarrei eta gainontzeko alderdi politikoei. Zentzu horretan, alderdi guztiei zabalik egongo den udal gobernua osatu da.

Parte hartzean aurreko legegialdiari jarraituz, beste urrats bat eman nahi dugu. Herritarren parte hartzean sakondu, herriko proiektu nagusiak eztabaidagai izango dira. Herritik, herritarrekin herriarentzat gobernatuko dugu.

Azkenik, Telesforo Urrestik utzitako akzioekin zer edo zer egin nahian zabilzate, ezta?

Telesforo Urrestik utzitako dirua erabili egingo du udalak, orain arte, etekinak bai, baina akzioetako dirua bera ez da erabili eta.

HERRIA AURRERA ATERATZEA LORTUKO DUGU!



UDALETXEA

MUSIKA PLAZA z/g

1.pisuan:

Idazkaritza	94 6833674
Alkatetza	94 6833676
Bulego Teknikoa	94 6833677
Kultura eta Kirol Saila	94 6833669
Euskara Zerbitzua	94 6833668
Berdintasun Saila	94 6833670

PLAZA AZPIKO BULEGOAK

Erregistro orokorra	94 6833672
Udalzaingoa	94 6833673
Gizarte Zerbitzuak	94 6833671
Kontuhartzailatza	94 6833666
Kontsumo Bulegoa (eguenetan)	94 6830498
Bake Epaitegia	94 6833679

BESTE UDAL ZERBITZUAK

Artibai Egoitza	94 683 32 31
EtxeLila	94 613 40 08
HHI - EPA	94 683 27 55
Liburutegia	94 683 33 43
Kiroldegia	94 613 42 09
Musika Eskola	94 613 40 63
Turismo Bulegoa	94 683 19 51

TELEFONO INTERESGARRIAK

Osasun Etxea	94 603 79 99
Gurutze Gorria	94 683 19 29
SOS Larrialdiak	112
Suhiltzaileak	94 616 89 92
Itsas Sanitatea	94 683 10 00
Alkoholiko Anonimoak Elkarte	94 683 20 86
Emakunde	945 13 26 13
Bizkaibusa	902 222 265
Euskotrena	902 543 210
PESA	902 101 210
Taxi-Geltokia	94 683 26 86
Kofradia	94 683 01 50
Txalupen sarrera	94 683 02 23
Enplegu Bulegoa	94 683 07 00
Butanoa	94 616 62 54
Iberdrola	94 415 14 11
Telefonika-Aberiak	1002
Ura- Partzuergoa	94 487 31 87
Postetxea	94 683 15 01
Parrokia	94 683 01 98
Notaritza	94 683 00 83
Arraun Egoitza	94 683 33 35
Zaldupe Zelaia	94 683 10 53
KZgunea	94 683 33 45
Lea-Artibai Amankomunazgoa	94 616 90 68
Lea Artibai Garapen Agentzia	94 683 34 95

> 60 urtetik gorakoentzako ibilbideak

Hileko azken barikuetan, 11.00etan, Zaldupen. Kiroldegiko monitore baten laguntzarekin, 3 kilometroko ibilbidea egiten dute, eta zirkuitu bio-osasungarrietan ibili. Eguraldi eskasa dagoenean, kiroldegian bertan egiten dituzte ariketak.



> Traste zaharrak ateratzeko eguna errespetatu!

Gogoratu traste zaharrak ateratzeko, txanda eskatu behar dela, 94 613 8245 telefono zenbakira deituta. Hantxe esango dizute ze egunetan atera eta ze lekutan utzi behar duzun. Zerbitzua dohainik da. Gero eta jende gehiagok ateratzen du atera behar ez denean, eta horrek zerbitzuaren etorkizuna arriskuan ipintzen du.

